DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Donostiako alkatea
El Alcalde de San Sebastián

Ijentea, 1 - Tel. 010 - 943481005 - www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**"UDALBATZAREN BATZORDE IRAUNKORRAK -OROKORRAK ETA BEREZIAK- SORTZEKO ERABAKIA**

**"ACUERDO SOBRE CREACIÓN DE LAS COMISIONES PERMANENTES -GENERALES Y ESPECIALES- DEL PLENO**

Donostiako Udalbatzaren Organo Araudia (UOA) 2004ko abuztuaren 31n onartu zuen Udalbatzak, eta haren IX. tituluak arautzen ditu batzordeen osaera eta jarduteko modua.

El Reglamento Orgánico del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián (ROP), aprobado en sesión plenaria de 31 de agosto de 2004, regula en su título IX la composición y funcionamiento de las Comisiones.

Udalbatzaren Batzordeak iraunkorrak edo ez iraunkorrak izan daitezke; eta, iraunkorrak, orokorrak edo bereziak.

Las Comisiones del Pleno podrán ser permanentes o no permanentes y aquellas, a su vez, se clasifican en Comisiones Generales y Comisiones Especiales.

Udalbatzaren Organo Araudiko 128. Artikuluaren arabera, agintaldi bakoitzaren hasieran, eta lehendakariak proposatuta, Udalbatzak batzorde orokorrak eta bereziak eratzea erabakiko du.

Según el art. 128 del ROP, al inicio de cada mandato y a propuesta de su Presidenta o Presidente, el Pleno acordará la constitución de las Comisiones Permanentes Generales y Especiales.

Udalbatzaren batzorde iraunkor orokorrak dira beren eginkizun ohikoen artean honako hauek egiteko xedez eratutakoak: Udalbatzak ebatzi beharreko aztergaiak aztertu zein haien gainean iritzi edo kontsulta emateko ohiko eginkizunak bereganatzea, alkatearen eta gobernu taldearen gestioaren jarraipena egitea eta Udalbatzak berak izendatutako ebazpen eginkizunak betetzea.

Las Comisiones Permanentes Generales son aquellas que se constituyen para asumir de manera habitual el ejercicio de las funciones de estudio, informe o consulta de los asuntos que hayan de ser sometidos a la decisión del Pleno, para el seguimiento de la gestión del Alcalde y de su equipo de gobierno y las funciones resolutorias que el Pleno les delegue.

Batzorde iraunkor bereziei dagokienez, aipatu araudiko 128.2 artikuluak adierazten duenez, Kontuen Batzorde Berezia, Iradokizun eta Erreklamazioen Batzorde Berezia eta

Respecto a las Comisiones Permanentes Especiales, el artículo 128.2 del citado Reglamento indica que deberán existir la Comisión Especial de Cuentas, la Comisión Especial de sugerencias y reclamaciones y la

10740n XVII

Kontratazioaren Gainean Egoteko Batzorde Berezia.

Comisión Especial de control y seguimiento de la contratación.

Aipatu batzordeak eratzeko erabakiak xedatu behar du zenbat zinegotzik osatuko duten batzorde bakoitza eta nola banatuko diren udal talde politikoen artean, betiere proportzionaltasunaren printzipioa errespetatuta (UOAren 128.3 artikulua). Batzorde bereziak sortzeko erabakiak, gainera, ohiko bilkuren maiztasuna ere zehaztuko du (UOAren 128.4 artikulua).

El acuerdo de constitución de las mencionadas Comisiones ha de determinar el número de Concejalías que formará cada Comisión y su distribución entre los distintos grupos políticos, atendiendo al principio de proporcionalidad (artículo 128. 3 ROP). El acuerdo de creación de las Comisiones Especiales determinará, asimismo, la periodicidad de sus sesiones ordinarias (artículo 128. 4 ROP).

Horiek horrela direla, hona hemen alkateak Udalbatzari proposatutako

Por todo ello, esta Alcaldía propone al Excelentísimo Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente

## ERABAKIAK

**Lehenengoa**: Honako batzorde iraunkor orokor hauek eratzea:

- Zerbitzu Orokorren Batzordea
- Ogasun Batzordea
- Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordea.
- Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea
- Gune Publikoetako Batzordea. Obrak eta Hiri Zerbitzuak.

**Bigarrena**: Honako osaera hau izatea batzorde iraunkor orokor hauek:

## ACUERDO

**Primero**: Crear las siguientes Comisiones Permanentes Generales:

- Comisión de Servicios Generales
- Comisión de Hacienda
- Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio
- Comisión de Servicios a las Personas
- Comisión Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos

**Segundo**: Establecer la siguiente composición en cada Comisión Permanente General:

ZERBITZU OROKORREN BATZORDEA
COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES

| | |
|---|---|
| EAJ/PNV TALDEA | 3 kide |
| EH BILDU TALDEA | 2 kide |

| | |
|---|---|
| PSE-EE TALDEA | 2 kide |
| PP TALDEA | 1 kide |
| ELKARREKIN DONOSTIA TALDEA | 1 kide |

| | |
|---|---|
| GRUPO EAJ/PNV | 3 miembros |
| GRUPO EH BILDU | 2 miembros |
| GRUPO PSE-EE | 2 miembros |
| GRUPO PP | 1 miembro |
| GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA | 1 miembro |

OGASUN BATZORDEA
COMISION DE HACIENDA

| | |
|---|---|
| EAJ/PNV TALDEA | 3 kide |
| EH BILDU TALDEA | 2 kide |
| PSE-EE TALDEA | 2 kide |
| PP TALDEA | 1 kide |
| ELKARREKIN DONOSTIA TALDEA | 1 kide |

| | |
|---|---|
| GRUPO EAJ/PNV | 3 miembros |
| GRUPO EH BILDU | 2 miembros |
| GRUPO PSE-EE | 2 miembros |
| GRUPO PP | 1 miembro |
| GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA | 1 miembro |

LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA
COMISION DE DESARROLLO Y PLANIFICACION DEL TERRITORIO

| | |
|---|---|
| EAJ/PNV TALDEA | 3 kide |
| EH BILDU TALDEA | 2 kide |
| PSE-EE TALDEA | 2 kide |
| PP TALDEA | 1 kide |
| ELKARREKIN DONOSTIA TALDEA | 1 kide |

| | |
|---|---|
| GRUPO EAJ/PNV | 3 miembros |
| GRUPO EH BILDU | 2 miembros |
| GRUPO PSE-EE | 2 miembros |
| GRUPO PP | 1 miembro |
| GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA | 1 miembro |

PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEA
COMISION DE SERVICIOS A LAS PERSONAS

| | |
|---|---|
| EAJ/PNV TALDEA | 3 kide |
| EH BILDU TALDEA | 2 kide |
| PSE-EE TALDEA | 2 kide |
| PP TALDEA | 1 kide |
| ELKARREKIN DONOSTIA TALDEA | 1 kide |

| | |
|---|---|
| GRUPO EAJ/PNV | 3 miembros |
| GRUPO EH BILDU | 2 miembros |
| GRUPO PSE-EE | 2 miembros |
| GRUPO PP | 1 miembro |
| GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA | 1 miembro |

ESPAZIO PUBLIKOAREN BATZORDEA. HIRI LAN ETA ZERBITZUAK

COMISION DE ESPACIO PUBLICO. OBRAS Y SERVICIOS URBANOS

| | |
|---|---|
| EAJ/PNV TALDEA | 3 kide |
| EH BILDU TALDEA | 2 kide |
| PSE-EE TALDEA | 2 kide |
| PP TALDEA | 1 kide |
| ELKARREKIN DONOSTIA TALDEA | 1 kide |

| | |
|---|---|
| GRUPO EAJ/PNV | 3 miembros |
| GRUPO EH BILDU | 2 miembros |
| GRUPO PSE-EE | 2 miembros |
| GRUPO PP | 1 miembro |
| GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA | 1 miembro |

**Hirugarrena**: Honako batzorde iraunkor bereziak sortzea. Hemen xedatzen da, baita ere, zer eginkizun izango dituzten, nork osatuko dituen eta bilerak zenbatean behin egingo dituzten:

1.- KONTUEN BATZORDE BEREZIA

A) Eginkizunak:

Kontuen Batzorde Bereziari dagozkio apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzekoak, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Berreginak eta toki erakundeen kontularitza arautzeko gainerako xedapenek berariaz izendatzen dizkioten eginkizunak.

B) Osaera:

Honako hauek izango dira kideak:

**Tercero**: Crear las siguientes Comisiones Permanentes Especiales con las funciones, composición y periodicidad que a continuación se establece:

1.- COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS

A) Funciones:

A la Comisión Especial de Cuentas le corresponden las funciones que expresamente le asigna la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, y las demás disposiciones reguladores de la contabilidad de las entidades locales.

B) Composición:

Se establece la siguiente composición:

| | |
|---|---|
| EAJ/PNV TALDEA | 3 kide |
| EH BILDU TALDEA | 2 kide |

| | |
|---|---|
| PSE-EE TALDEA | 2 kide |
| PP TALDEA | 1 kide |
| ELKARREKIN DONOSTIA TALDEA | 1 kide |

| | |
|---|---|
| GRUPO EAJ/PNV | 3 miembros |
| GRUPO EH BILDU | 2 miembros |
| GRUPO PSE-EE | 2 miembros |
| GRUPO PP | 1 miembro |
| GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA | 1 miembro |

Bilkuretara kontu hartzaile nagusia ez ezik, ogasun arloan eskumena duen udal arloaren arduradunak izendaturiko zuzendaritza organoaren burua ere joango da.

A sus sesiones asistirá el Interventor General, así como el titular del órgano directivo que designe el titular del Área competente en materia de Hacienda.

C) Bilkurak:

C) Sesiones:

Ohiko bilkuran elkartuko da urtean birritan, eta ohiz kanpoko bilkurak egin ditzake lehendakariak erabakita edo kideen legezko kopuruaren laurdenek, gutxienez, eskatuz gero, eta inongo zinegotzik ezingo du urtean hiru baino gehiago eskatu.

Se reunirá en sesión ordinaria dos veces al año, pudiendo celebrarse sesiones extraordinarias cuando así lo decida el Presidente o lo solicita la cuarta parte, al menos del número legal de miembros, sin que ningún concejal pueda solicitar más de tres anualmente.

2.- IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIA

2.- COMISIÓN ESPECIAL DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES

A) Eginkizunak:

A) Funciones:

Batzordeak udal administrazioaren jarduera gainbegiratzeaz gain, aurkeztutako kexen eta udal zerbitzuen funtzionamenduan topatutako akatsen berri eman beharko dio Udalbatzari, urtean behin egingo duen txosten baten bitartez, eta udal administrazioak onartu ez dituen iradokizun edo gomendioak ere jaso beharko ditu bertan.

La Comisión podrá supervisar la actividad de la Administración municipal y deberá dar cuenta al Pleno, mediante un informe anual, de las quejas presentadas y de las deficiencias observadas en el funcionamiento de los servicios municipales, con especificación de las sugerencias o recomendaciones no admitidas por la Administración municipal.

Halere, ohiz kanpoko txostenak ere egin ditzake gertaeren larriak ala presak hala eskatuz gero. Txosten ohiz kanpokoa prestatuko du ezein batzordekidek eskatuta, kideen gehiengo absolutuak hala egitea onartuz gero.

No obstante, también podrá realizar informes extraordinarios cuando la gravedad o la urgencia de los hechos lo aconsejen. El informe extraordinario se elaborará a petición de cualquier miembro de la Comisión que sea aprobada por la mayoría absoluta de la misma.

B) Osaera:

B) Composición:

Honako hauek izango dira kideak:

Se establece la siguiente composición:

| | |
|---|---|
| EAJ/PNV TALDEA | 3 kide |
| EH BILDU TALDEA | 2 kide |
| PSE-EE TALDEA | 2 kide |
| PP TALDEA | 1 kide |
| ELKARREKIN DONOSTIA TALDEA | 1 kide |

| | |
|---|---|
| GRUPO EAJ/PNV | 3 miembros |
| GRUPO EH BILDU | 2 miembros |
| GRUPO PSE-EE | 2 miembros |
| GRUPO PP | 1 miembro |
| GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA | 1 miembro |

C) Bilkurak:

Urtean birritan elkartuko da ohiko bilkuran, hartarako egindako deiaren ondorioz.

3.- KONTRATAZIOA KONTROLATZEKO ETA JAKITUN EGOTEKO BATZORDE BEREZIA

A) Eginkizunak:

Donostiako Udalak, erakunde autonomiadunek, enpresa erakunde publikoek eta Udalaren merkataritza baltzuek egindako kontratuei dagokienez, Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Bereziak honako eskumen hauek izango ditu:

a) Bere aplikazio eremuko organoek izenpeturiko kontratuak analizatu eta, horren ondorioz, txostena ematea.

b) Izenpetzen dituzten kontratuei lotutako dokumentuak eskatzea Donostiako Udaleko, erakunde autonomiadunetako, enpresa erakunde publikoetako eta udalaren merkataritza baltzuetako kontratazio organoei.

c) Udal Administrazioaren zerbitzuan egonda, lehiaketa prozesuren batean parte hartu duten funtzionario edo lan kontratupeko langileei agertzeko eskatzea, gai jakinen baten gaineko argibideak eman ditzaten, edo txosten idatzia egiteko eskatzea. Halaber,

C) Sesiones:

Celebrará dos sesiones ordinarias al año, previa convocatoria al efecto cursada.

3.- COMISIÓN ESPECIAL DE CONTROL Y SEGUIMIENTO DE LA CONTRATACIÓN

A) Funciones:

Respecto de los contratos que celebren el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, sus Organismos Autónomos, entidades públicas empresariales y sociedades mercantiles municipales, la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación tendrá las siguientes funciones:

a) Analizar los contratos celebrados por los órganos incluidos en su ámbito de aplicación y emitir el informe derivado de dicho análisis.

b) Requerir a los órganos de contratación del Ayuntamiento de Donotia-San Sebastián, de sus Organismos autónomos, entidades públicas empresariales y sociedades mercantiles municipales la documentación relativa a los contratos que celebren.

c) Requerir la presencia de cualquier funcionario o empleado laboral al servicio de la Administración municipal que haya intervenido en el proceso de licitación correspondiente, con el fin de que aporte información sobre Algún asunto en concreto, o instarle para que emita informe por escrito. Asimismo, podrá requerir la presencia de los

Udalak, erakunde autonomiadunek, enpresa erakunde publikoek eta Udalaren merkataritza baltzuek egindako kontratuak gestionatzeko ardura duten zuzendaritza organoen titularrak eta zinegotziak agertzeko ere eska dezake.

Batzordeak Udalbatzari eman behar dio bere jardueraren berri, urtean behin txosten bat eginda.

B) Osaera:

Concejales, así como de los titulares de los órganos directivos responsables de la gestión de los contratos realizados por el Ayuntamiento o por los organismos autónomos, entidades públicas empresariales y sociedades mercantiles municipales.

Asimismo, la Comisión deberá dar cuenta al Pleno de su actividad mediante un informe anual.

B) Composición:

| | |
|---|---|
| EAJ/PNV TALDEA | 3 kide |
| EH BILDU TALDEA | 2 kide |
| PSE-EE TALDEA | 2 kide |
| PP TALDEA | 1 kide |
| ELKARREKIN DONOSTIA TALDEA | 1 kide |

| | |
|---|---|
| GRUPO EAJ/PNV | 3 miembros |
| GRUPO EH BILDU | 2 miembros |
| GRUPO PSE-EE | 2 miembros |
| GRUPO PP | 1 miembro |
| GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA | 1 miembro |

C) Bilkurak:

Urtean lautan elkartuko da ohiko bilkuran, eta ohiz kanpoko bilkurak egin ditzake lehendakariak erabakita edo kideen legezko kopuruaren laurdenek, gutxienez, eskatuz gero, eta inongo zinegotzik ezingo du urtean hiru baino gehiago eskatu.

C) Sesiones:

Se reunirá en sesión ordinaria cuatro veces al año, pudiendo celebrarse sesiones extraordinarias cuando así lo decida el Presidente o lo solicita la cuarta parte, al menos del número legal de miembros, sin que ningún concejal pueda solicitar más de tres anualmente. .

Donostian, 2019ko ekainaren 17a

ALKATEA

Eneko Goia Laso